


Kioldegia




Txirrindularitza

JUAN HERRERO / EFE

Jalabertek Munduko lider jarraitzen du

UCIren munduko sailkapenean Laurent Jalabertek —Ordiziako klasikoa irabazi berri du— jarraitzen du lider. Lance Armstrong, berriaz bigarren posturaino igo

da Tourra irabazi ostean, Jalabertek baino bostehun puntu gutxiagorekin. Hirugarren postua Bartolirentzat da, eta Olano laugarren postuara igo da.



Atletismoa

PIERRE OBENDRAUF / AP

Pedrosok urteko hirugarren marka onena

Luzerako jauzian urteko hirugarren marka onena lortu zuen igandean Ivan Pedroso kubatarrak Winnipegen jokatzeko ari diren Joko Pana-

merikanoetan. 8,52 metrotako jauzia lortu zuen Pedrosok, eta ia metro erdiko aldea kendu zion bigarrenari. Eskas ibili ziren besteak.

Nanga Parbat


ezin. Jon Lazkano, Jose Carlos Tamayo, Felix eta Alberto Iñurategik ezin izan dute Nanga Parbat (8.125 m.) gailurrera iristeko lehen ahaleginean. Larunbatean II. kanpamentura (6.000 m.) heldu ziren, baina igandea elur eta haizearekin argitu zen, eta egun osoa zain egon ondoren, kanpamentu nagusira jaistea erabaki zuten, iragarpenak ez baitziren onak. Ostegunean abiatuko dira berriro gorantz.

Dietzen. Huescako Epaitegiak emandako sententziaren arabera, Espainiako Vueltako antolatzaile Unipublic enpresak 80 milio pezetara ordaindu beharko dizkio Raymond Dietzen txirrindulariari, 1989an Vueltan Cotaloko tunelean izan zuen istripu larria dela eta.

Saskibaloia. Estatu Batuetako Dream Team-ak irabazi du Amerikako preolimpikoa, finalean kanadari irabazi ostean. Preolimpikoko partidua guztietan legez, aise irabazi zuten Estatu Batuek finala, eta 99-66ko aldea aterazi zioten Kanadari. Gary Payton onena, 19 saskiratzerekin.

Futbol Amerikarra.

Tampa Bay Buccaneers-ko jokalaria ohi Demetrius Du Bose poliziarekin izandako tiroketa batean hil zen San Diegon.




Saskibaloia

JUAN HERRERO / EFE

Espainia Munduko txapelkun junior mailan

Egunotan Lisboan jokatu den junior mailako munduko txapelketan Espainiako selekzioak irabazi du finalean Estatu Batuei gailendu ostean. Sainz de Ajak

zuzentzen duen taldeak 94-87 irabazi zuen, eta Juan Carlos Navarro (argazkian) finaleko jokalaria onena izendatu zuten. 27 puntu lortu zituen finalean.



Tenisa

Rafter da ATPko lider berria

Andre Agassiri Munduko lehen postua kendu dio Patrick Rafterrek. Bigarren Sampras dago orain, eta Agassi hirugarren postura jaitzi da. ATPko zerrendako lehen postuan aurten egon den bosgarren aldaketa da jada hori; iaz, berriaz, Rios izan zen lider bakarra.

PACO CAMPOS / EFE



Motonautika

SONNY HEDGECK / AP

Azkenean, sustua besterik ez

Istribu zalapartsua izan zuen argazkian ikusten den gidariak Estatu Batuetako High Point herrian jokaturako lasterketa batean. Lehen pos-

tuan zihola, ibilgai-lua irauli eta golpe itzela hartu zuen gidariak. Halere, sustua besterik ez zen izan, eta zauri arinak soilik izan zituen.



Golfa

JASPER JUINEN / EPA

Westwoodek irabazi du Holandako irekia

Lee Westwood ingelesak irabazi zuen igandean Holandako golf irekia, 269 kolperek. Ozta-ozta lortu zuen garaipena, hala ere, Lee Westwoodek:

Gary Orr bigarrenari kolpe bateko aldea soilik aterazi zion, eta Romero hirugarrenari eta Moseley laugarrenari, berriaz, bi kolpetakoa.